

The red doors

Euskaldunon Egunkaria, 1992-04-14: 2.

Josemari Velez de Mendizabalek heranegun hemen bertan kontatzen ziguna bere txantxetako bat izan daiteke: Antonio Iturribidek egindako eskabide baten erantzuna jaso berria omen du Hezkuntza Saisetik Kamino de la Fuente de Antonio izenarekin. Harritzen da. Eta ni ez, zeren orain 25 urte txertatu ninduen Caracasen San Sebastianeko *La Voz de España* Espainiaren ebakin batek: Ategorrietan gertatutako zerbait Las Puertas Rojas zen kokatzen zuen kazetariak izenburu haundietan. Francoren denboran gauza hauek sarri gertatzen ziren, eta halere ez ziren garai hartan gaur Buesa kontseilariak esaten dituen adinekoak botatzera ausartzen. Gaurko sozialista espainolak gizon honekin abiatu diren bidetik urrunago doaz. Eta, adi zazu irakurle, ez dut uste gaiztakeria zenik; nire aitak grazia handiaz c-gaz esaten zuen 'ignorancia' baizik. Unibertsitate eta Kulturako Kontseilaritzaren buru den honi eskatu beharko litzaioke lotsa apur bat, ezta! Ez baita euskal izenak 'castizora' itzuli behar hau bakarrik. Hor badu Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko lehendakari den Antonio Kanposek arrazoirik esateko: "ikastolak desegin nahi dizkigutela!"; eta dizkiguten horiek Buesa jaunaren ozteak dira, berriz. Kasualitatea dirudi, baina haizeak hortik erasotzen gaitu aspaldi honetan. Nigandik zuganako isilpeko izan dadila, baina gure hizkuntza eta kulturaren aurkako eraso honek Errumaniako Ceaucescu gogoratzen dit. Honek aurrerapenerako baserriak eta auzo osoak bota eta berriak egiteko fanatismo hura bera... Hezkuntza barrabas hori zer da, zaharra?, ba bota, eta denok hitzegiten dugun gazteleran aurrera! Gurasoek bere hurrei beste hizkuntza bat erakutsi nahi dietela? Ba ikas dezatela ingelesa, gauza praktikoa!